

2024/11/30era

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsaren %75, gutxienez, errenta aldakorreko aktiboetan egongo da; hortik %75 gutxienez Japoniako jaulkitzaileen baloreetan, kapitalizazioari eta sektoreekiko aurretik ezer erabaki gabe. Errenta aldakorreko gainerako zatia ELGEko jaulkitzaileetan egongo da. Errenta finkoan, inbertitu ahalko du jaulkitzaile publiko nahiz pribatuaren aktiboetan, kotizatutako ala ez, likidoak, aurretik erabaki gabe kotizatutako duten merkatuak edo herrialdeak, jaulkipenen(edo jaulkitzaileen) rating-a edo batez besteko iraupena. Dibisa-arriskua %0-%100 bitartekoa izango da. *Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak edo/ta alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamendua 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabaketan txertatzen ditu. *Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke. *FUNTS HONEK %25 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, BERAZ, KREDITU-ARRISKU HAUNDIA DAUKA.

Ezaugarri Orokorrak

Ondarea: 6.171.549,75
 Komisioak guztira: %2,00
 Harpidetza komisioa: %0,00
 Errenbolto Komisioa: %0,00
 Fondo mota: NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKORRA
 Arrisku-profila: 4 1-etik 7- rako eskalan
 Inbertsiorako gutxieneko epea: 5 urte

2024/11/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
%1,56	%0,27	%13,51	%15,92	%8,80	%8,44

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.


2024	2023	2022	2021	2020	2019
%13,51	%26,23	-%13,17	%2,52	%16,05	%17,26

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunak.

2024/11/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte** %22,45
 Lurrunkortasun 3 urte** %19,77

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.



Hileko iruzkina


Azaroko gertakizun aipagarrienak Donald Trumpen hauteskundeetako garaipenaren biharamuna eta Ipar Amerikako ekonomia munduko beste lekuetako ekonomiarekiko izan duen hazkuntza diferentziala izan dira. Merkatuak, Estatu Batuetako bereziki, Trumpek aurretik iragarritako neurrien sorta osoa bateratu ahal izateko administrazio berriaren gaitasunean sinesten jarraitu dute. Gobernu berriak defizit publikoa ito eta zorraren iraunkortasunari buruzko zalantza berriak ekartzeko beldurrak uxatu ditu, neurri handi batean, Wall Streeten ospe onargarriko altzorraren etorkizuneko idazkaria aukeratzeak. Halaber, arantzelen politiken dardarkortasunak jarduera ekonomikoa balaztatzeko arrisku bikoitz gisa identifikatzen dena eta inflazio tentsioak sortzen dituen, administrazio berriaren negoziatzeko trikimailu gisa hautematen da, eta epe laburrean gutzit barneratzea ez da espero. AEBen egoera oso desberdina da Europarekiko, non ahulezia handiagoko testuingurua den nagusi makro erregistroetan, eta ezegonkortasun politikoa bizi den. Alemaniak hauteskundeak aurreratu ditu ia geldialdiari etenik eman gabe, eta Frantziak ezin izan du eratu gobernu eragilerik. AEBren eta munduaren gainerako lekuen arteko aldeei erreparatuta, Ipar Amerikako burtsak maximo historiko berriekin bukatu dute azaroa, eta urtean zehar birbalorazio erlatibo handiena metatu dute iragan mendetik gainerako indizeen aldean. S&P indizeak % 5,73 irabazi du; Eurostoxxa moteldu egin da, Trumpen garaipenetik arantzelen mehatxuaren ondorioz, eta % 0,47 galdu du. Ibex-35 indizeak, ez dena hain kaltetua izan, % 0,27 galdu du. Munduko beste indize batzuk ere galerekin bukatu dute hilabetea, Japonia (-% 2,23) eta suspertzen ari diren herrialdeetakoak ere (-% 3,6), kasu honetan dolarraren birbalorizazioaren ondorioz. Soilik Txinako burtsa izan da zenbaki gorriak saihesteko gai (+%1,42), eskala handiko estimulu sortan oinarrituta, barne hazkundea bultzatzeko Trumpen garaipenaren aurrean. Errenta finkoari dagokionez, 10 urterako Alemaniako zorra % 2,09ko interes bat eskaintzen bukatu du, oinarritzko 30 puntu erori ondoren aurreko hilabeteko itxierarekiko, eta Banku Zentralak ekonomia herren baten erreskatara jo behar izatea deskontatu du. Interes-jaitzierak Amerikako merkatura ere iritsi da, eta Estatu Batuetako hamar urterako bonuari eskatzen zaien errentagarritasuna % 4,20 inguruko mailara jaitsi da, Amerikako Diruzaintzaren hurrengo idazkaria izendatu aurretik izandako % 4,50 hartatik urruti. Bestetik, Alemaniaren aurkako europar zorraren gainerako diferentzialen jokaera desberdina izan da. Italiak, aldiz, arrisku-prima jaisten jarraitu du; Espainiak hari eutsi dio. Frantziak berea 83 puntuetara arte nola igo den ikusi du. Azkenik, dolarra indartu egin da euroarekiko 1,05eko baliora arte. Brent gordinak, aldiz, % 1,34 inguru igo du eta upela 74,27\$-ko prezioan utzi du, gehiegizko asetze beldurra bazegoen ere.

Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
AC. FAST RETAILING CO LTD	%9,31
AC. TOKYO ELECTRON LIMITED	%6,59
AC. ADVANTEST CORP	%5,32
AC. SOFTBANK GROUP CORP	%4,15
AC.TDK CORP	%2,55

Errenta aldakorreko posizio nagusiak: zuzeneko esposizioa barne.
 Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala: zuzeneko esposizioa eta zeharkako esposizioa deribatuen eta ETF-en bitartez.

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ez eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordeztzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharrekiko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratze-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.